

Lotu lanbideak eta deskribapenak → zer naiz ni?

Nolako arropa? Zertarako?



Iturgina



Medikua



Tenista



Suhiltzailea



Margolaria



Sukaldaria

Nik arropa zuria dut. Nire arroparen gainean janzen dut bata zuria. Kirofanoan banago, berdea da nire bata. Orain bata irekita dut. Batak poltsikoa du fonendoskopioa gordetzeko. **Zer naiz?**

Nik txano berdea dut, alkandora ere bai. Orain peto zuria dut, baina askotan buzo urdina ibiltzen dut. **Zer naiz?**

Nik arropa berezia behar dut. Buruan kaskoa dut eta gaur uniforme gorria dut, beste batzuetan urdina. Nire lana oso arriskutsua da eta eskularruak behar ditut ez erretzeko. **Zer naiz?**

Nik txano zuri luzea dut, ileak lapikora ez erortzeko. Nire jantzia zuria da, dotorea. Guk dotore jantzi behar dugu, gure bezeroak gustura egoteko. **Zer naiz?**

Nik ere txanoa dut, txano zuria, ez zikintzeko. **Zer naiz?**

Nik gona motzak ditut, eta nire elastikoak ez du maukarik, eroso egoteko. Buruan bisera dut eguzkiak begietan ez jotzeko. **Zer naiz?**